

BERDINTASUNA. Emakundek antolatutako jardunaldia izan zen atzo



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Bernardette Van Dijkenek Holandako telebista publikoan egiten du lan, emakumeen irudi aholkulari gisa.

Aditu batek dio mende bat beharko dela telebistan emakumeen rola normaltzeko

Bernardette Van Dijken ustez, «genero estereotipoak hausteak kalitatea dakar»

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Bernardette Van Dijk kazetariaren ustez, «hamar belaunaldi edo mende bat inguru» behar izango da emakumeak telebistan oro har duen irudia erabat normalizatu ahal izateko. Aditu holandarrak urte batzuk daromatza lanean genero estereotipoen aurkako borrokan, Screening Gender programa dela medio; eta ekimen horrek kazetarien zein irakasleen esku jarritako «erreminta kutxa» erabiltzeko aholkuak eman zituen atzo Gasteizen, Emakundek antolatutako saioan.

Van Dijken ustea da «arrazoi profesional nahikoa» dagoela emakumearen orain arteko irudia aldatzeko (gorputza erakutsi, mutu egon edo gizonaren apaingarri hutsa agerrarazten duena): «Genero estereotipoak hausteak telebista saioen kalitatea areagotzea ekarri ohi du».

Telebista hobia egiteko giltza

Kazetari holandarrak lankide duen Klaudia Telleganen irizirik eman zituen bideo zinta batean. Klaudiak dokumentalak egiten ditu, eta argi dauka «konfiantzarik eza» dela emakumeak telebistan ez mintzatzeko arrazoi nagusia: «Saioa presta-

ESANAK

BERNARDETTE VAN DIJCK
(Kazetaria)

«Genero estereotipoak hausteak telebista saioen kalitatea areagotzea dakar»

«Sexia izatea ez da saltzen den bakarra. Kalitatearekin du zerikusia aldaketak, eta ez moralarekin»

«Mende bat inguru edo hamar belaunaldi beharko dira egoera aldatu ahal izateko»

tzen dugunok lortu behar dugu emakumea eroso sentitzea, hitz egin ahal izan dezan. Hala, emakumea telebistan agertuz gero, telebista hobia egingo da; oraindik kontatu gabeko hamaka istorio interesgarri baititu».

Van Dijkkek Telleganen mintzoa kendu eta Italiako RAI ka-

tearen adibidea jarri zuen. Azkenaldion saio serioetan eta albistegietan ere emakume sexiak agertzen ari direla esan zuen, eta ikus-entzule kopuruak behera egin duela gehitu, gehienbat emakumeak saio mota horri agur esan diolako. «Izan ere, sexia izatea ez da mundu honetan saltzen den bakarra». RAIk dituen irizpideak aldatzeko eztabaidak «kalitatearekin» duela zerikusia uste du, eta ez «moralarekin».

Gizona %68, emakumea %32

Screening Gender proiektuak telebista kate batzuetako ia 400 ordu aztertu eta ondorio argiak atera zituen: gizonaren presentzia %68koa zen, eta %32koa emakumearena. Soilik pantailan hitz egin zutenenak neurtu zituzten, eta emakumearen partaidetza herritar huts batena edo biktimarena izan ohi zela egiaztatu zen; soilik %28 agertzen ziren politikari gisa eta %20 aditu moduan.

Van Dijken arabera, «erreminta» batzuk badira egoera horri aurre egiteko, esaterako, Erdi eta Ipar Europako emakume politikarien tasa pantailan agertzen dena baino handiagoa izatea. Ikasle izandako askok, orain, telebista kateetako kazetari bihurtuta, erremintak eskatzeko hots egiten diotela dio irakasleak. «Ikasle nituela, nesketako %90ek zioten kontu hau guztia txorakeria zela».

EUSKARA

Berrioizarko Udaleko lan deialdietan ez da beti euskara sarituko

Erredakzioa | IRUÑEA

Nafarroako Administrazio Auzitegiak legezkotzat jo du Berrioizarko Udalaren 2001eko plantilla organikoa, eta, horren ondorioz, euskara jakitea ez da beti kontuan hartu behar izango merezimenduen atalean.

Herri horretako euskarren ordenantzek zehazten dute hori, alegia, euskaraz jakitea nahitaez eskatzen ez duten lanpostuetan euskara jakitea merezimenduen artean izatea, baina iazko plantilla organikoan udalak hiru

motako lanpostuak sartu zituen. Eta batzuetan euskara jakitea ez zen balioesten.

Berrioizarko herritar batek helegitea aurkeztu zuen, eta auzitegiak erabaki du plantilla organikoa legezkotzat dela. Hemendik aurrera, beraz, eta Administrazioan Euskaraz taldeak salatu duenez, euskararen ordenantzek ez dituzte lanpostuen hizkuntz eskakizunak erabakiko.

Iruñerrian, Berrioizarko Udala da zenbait lanpostutan euskaraz jakitea puntutuko dela bermatuta daukan bakarra.

Donostiako Plana garatzeko borondate politikorik ez dela salatu du Batasunak

Erredakzioa | DONOSTIA

Donostiako Batasunak gogor salatu du udal gobernuak euskararekin duen jarrera. Talde abertzaleak gogora ekarri du urte eta erdi pasa dela udal barneko 2. euskalduntze plangintzaldia onartu zenetik, baina gaur-gaurkoz ez dela aurrerapausorik eman. Ildo beretik, duela zortzi hilabete onartutako *Euskararen ekimen estrategikoak*. Donostiako Plan Orokorra garatzeko ere ezer gutxi egin dela dio: «Altzako Plan Estrategikoarekin hitzarmena eta web orrian gaia azal-

du». Egoera horrek, alderdi abertzalearen ustez, «garbi uzten du alderdi sozialistaren eta alkatearen aldetik ez dagoela inolako borondate politikorik euskara udalean lan hizkuntza izan dadin urrats praktikoa eraginkorrak egiteko». Batasunak «garbi du ofizialtasun ezak galarazten diola euskarari behar adineko lekua eta tamaina izatea». Horrexegatik, abertzale eta euskaltzale orori dei egin dio EHEk *Hizkuntza eskubideak borrokatuz, ofizialtasuna eskuratu* lelopean, etzi antolatu duen manifestaziora joatera.

UNIBERTSITATEA

Ikerketarako diru laguntzak onartu ditu Jaurilaritzak

Erredakzioa | GASTEIZ

Eusko Jaurilaritzako Gobernu Bilerak 6,2 milioi euroko aurrekontua onartu du ikerlariari prestatzeko beka programarako. Diru laguntzok 2002-2003 ikasturtean banatuko dituzte, eta lau programa edo ikerketa motarako eskuratu ahal izango dira. Horietatik lehena doktore egin aurreko programa da, eta 3. zikloko ikasketako programa baten barruan doktore tesia egin nahi duten tituludunak izango dira onuradunak. Bigarrenik, ikerketaileen hobekuntzarako

doktore egin ondoko programa dago, eta kanpoko zentro batean ikerketa proiektuak burutzeko bideratuko da. Hirugarren programarekin ikerketa lana Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian garatu nahi duten gazteei zuzenduko zaie. Azkenik, Espainiako aplikazio zentroentzako laguntza paraleloek osatuko dute laugarren programa. Horien helburua ikerketa garatzeak sortutako gastuak orekatzea da. Beka programok Anjeles Izutueta Hezkuntza sailburuaren proposamenez onartu zituen Jaurilaritzak atzo.